

ANDRE ELORRIOARRAREN ERRETOLIKA



Au, ontzia bela betean bezala, bere ibikiakin zebillen errespeto andiko bat zan. Eta zeren kontuak, nere gustoko, ta berezko ango Euskeraren grazia andia duen, Bizkaitarra baninz bezala, aien gisa kon-tatuko det.

Bizkaiko Abade jakitun batek bere lloba bat Erriko echandera baten seme bakarragaz ezkondu gura eben. Baia andreak ikusirik, Abadeak eskinten eutsan dotea bere echaguniteari, eta onek zituban obligaziñoai eranzuteko adiña etzala, al egian modurik onenean eskusadu iakan. Orregati bere Sazerdote iaun onek beti dote laburra opa eutsan, gero geituteko ustez; eta adietan emon gura izan eban bere llobeak zituban aide aberatsak, eta aetatik uste zituban urrezko mendiak, edo ondasunak, eta etorkizun onen errezkada luze bat chito ederto kontadu eutsan.

Echandera zintzoak epe galantagaz guztia entzun, eta azkenean Sazerdoteari modu onetan esan eutsan: Eta, jauna, zure mesedeak etorkizuna bazau? Ez, Andrea. Bakizu, etorkizuna zelangoa dan? Zuria, ala baltza dan? Ez, Andrea. Etorkizunagaz ian, edo edan bozu, edo beragaz bizi izan bazara? Ez, Andrea. Bada, Jauna, etorkizunen barri obagorik, eta segurubagorik ezpozu: zu geldi zaitte zeureagaz, eta ni bere banoa neureagaz. Eta orrenbestegaz Abade jaquitun ori, ill otza legez gogortu, ta mututurik Andreak ichi eban.

Orañ bada izenezko Euskaldun, sustanzia gabeko aizez beteak, esadazute, nondik Donostiar, ta beste Bizkaitar onek Izkunde dontsu eta Erretolika añ bizi, ta egokia ikasi zuten, edo nork erakatsi zien? Ez egiteki zuen burutik, edo zuen erreglakin, baizikan Jainkoaren doaiez, berenez, edo naturalezaz. Lenago esan det, ta orañ berriz diot Euskeraz, Erdaraz, edo Latiñez itzegitea, ta beardiran erreglakin ondo itzeguitea, guztia, bat ezdela.